# ADINEKOEN BATZORDE IRAUNKOR SEKTORIALA
# COMISIÓN PERMANENTE SECTORIAL DE PERSONAS MAYORES

## 2011-06-30eko OSOKO BILKURAREN AKTA

## ACTA DEL PLENO DE 30-06-2011

**DEIALDIA EGITEN DUENA**:

**Presidentea**: **Alfonso Gurpegui jauna**.- Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria.

**BERTARATUAK**:

**Ángel Manero jauna.** Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritza.

**Elena Elosegui andrea.-** Osasun Saila.

**Mertxe Muñiz andrea**.- Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintza Saila.

**José Antonio Martín jauna.** Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Saila.

**José Manuel Odriozola jauna.-** Eusko Federpen (Euskadiko Pentsiodun eta Erretiratuen Probintzia Elkarteen Lurralde Federazioa).

**José Luis Elosua jauna**.- Nagusilan Adin Nagusikoen Giza Boluntariotza.

**José Ribiere jauna.-** Gipuzkoako Erretiratu eta Pentsiodunen Elkartea.

**Sabin Ipiña jauna**.- Nagusiak Bizkaiko Jubilatu eta Pentsiodunen Elkartea.

**Olatz Etxabe andrea**.- EAEko Gizarte Laneko Diplomatuen eta G. Laguntzaileen Elkargo Ofizialak.

**Begoña Frutos andrea**.- Euskadiko Psikologoen Elkargo Ofizialak

**Begoña Pablos andrea**.- Euskadiko Sendagileen Kontseilua

**Virginia Lizarraga andrea**.- Bizitzen Fundazioa.

**CONVOCA**:

**Presidente**: **D. Alfonso Gurpegui.-** Director de Servicios Sociales del Departamento de Empleo y Asuntos Sociales.

**ASISTENTES**:

**D. Ángel Manero.** Dirección de Servicios Sociales del Departamento de Empleo y Asuntos Sociales.

**Dña. Elena Elosegui**.- Departamento de Sanidad.

**Dña. Mertxe Muñiz**.- Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia.

**D. José Antonio Marín.** Departamento de Política Social y Servicios Sociales de la Diputación Foral de Alava.

**D. José Manuel Odriozola**.- Eusko Federpen (Federación Territorial de Asoc. Provinciales de Pensionistas y Jubilados del País Vasco).

**D. José Luis Elosua.-** Nagusilan Voluntariado Social de Mayores.

**D. José Ribiere.-** Asociación Guipuzcoana de Jubilados y Pensionistas.

**D. Sabin Ipiña.-** Nagusiak Asociación de Jubilados y Pensionistas de Bizkaia.

**Dña. Olatz Etxabe.-** Colegios Ofic. de Diplomados en Trabajo Social y Asistentes Sociales de la CAPV.

**Dña. Begoña Frutos**.- Colegios Oficiales de Psicólogas y Psicólogos de Euskadi.

**Dña. Begoña Pablos.-** Consejo de Médicos de Euskadi.

**Dña. Virginia Lizarraga.-** Fundación Bizitzen.

**Mª Isabel Perea andrea**.- Euskadiko Alzheimer Gaixoen Senideen Elkarteen Federazioa.

**Dña. Mª Isabel Perea.-** Federación de Asociaciones de Familiares de Enfermos de Alzheimer de Euskadi.

**Jaime García Moreno jn**.- Aholkularitza Teknikoa.

**D. Jaime García Moreno**.- Asesoría Técnica.

**GONBIDATUAK:**

**PERSONAS INVITADAS:**

**Mayte Sancho andrea**.- Ingema.

**Dña. Mayte Sancho.-** Ingema.

**Miguel Leturia jauna**.- Ingema.

**D. Miguel Leturia**.- Ingema.

**BERTARATU GABEAK**:

**AUSENTES**:

**Ana Tellería andrea**.- Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila.

**Dña. Ana Tellería**.- Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes.

**Arantza Elizondo andrea**.- Emakunde Emakumearen Euskal Erakundeko idazkari nagusia.

**Dña. Arantza Elizondo**.- Secretaria General de Emakunde/Instituto Vasco de la Mujer.

**Cándido Hernández jauna**.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria.

**D. Cándido Hernández.-** Director de Innovación Educativa del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

**Ignacio Rodríguez jauna.-** Kultura Sailaren Gazteriako zuzendaria.

**D. Ignacio Rodríguez.-** Director de Juventud del Departamento de Cultura.

**Juan Ramón Larrañaga jauna**.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentua.

**D. Juan Ramón Larrañaga**.- Departamento de Política Social de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

**EUDELen ordezkariak.**

**Representantes de EUDEL.**

**Antonio González jauna.-** Las Cuatro Torres. Arabako Erretiratu, Pentsiodun eta Alargunen Probintzia Elkartea.

**D. Antonio González.-** Las Cuatro Torres. Asoc. Provincial de Jubilados, Pensionistas y Viudas de Alava.

**Manuel Merino jauna**.- Lares Euskadi.

**D. Manuel Merino**.- Lares Euskadi.

**Lucía Linares andrea**.- Aieratu Euskal Herriko emakume alargunen elkarteen federazioa.

**Dña. Lucía Linares.-** Federación de Viudas Aieratu de Euskal Herria.

**-------------**

Bilkura 2011ko ekainaren 30eko goizeko 11:00etan hasi zen Gasteizen, honako gai-zerrenda honekin:

1. 2011ko martxoaren 14an egindako aurreko ohiko bilkuraren akta onartzea.
2. Monografikoa: Adinekoentzako Ekintza Plana (2011-2015). Egindako lanen aurrerapenaren aurkezpena (eztabaidarako agiria: "*Zahartzen direnen ongizatean eta tratu onean aurrera egiteko ehun proposamen*")
3. Galde-eskeak.

**-------------**

La sesión dió comienzo a las 11:00 h. de la mañana del 30 de junio de 2011, en Vitoria-Gasteiz, con el siguiente orden del día:

1. Aprobación del acta de la sesión ordinaria anterior celebrada el 14 de marzo de 2011.
2. Monográfico: Plan de Acción para las Personas Mayores (2011-2015). Presentación del avance de los trabajos realizados (documento para el debate: "*Cien propuestas para avanzar en el bienestar y buen trato de las personas que envejecen*")
3. Ruegos y preguntas.

***1. puntua*. 2011ko martxoaren 14an egindako aurreko ohiko bilkuraren Akta onartzea.**

Eusko Federpen elkarteko José Manuel Odriozola jaunak eskatu du 4. orrialdean bildutako eztabaidan argi uzteko adinekoen politika espezifikoen aldeko jarrera duela.

Ekarpen hori gehitu ondoren, bertaratuek aho batez onartu dute akta.

***2. puntua.* Monografikoa: Adinekoentzako Ekintza Plana (2011-2015).**

Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritzako Alfonso Gurpegui jaunak Batzordearen xedea gogoratu du, eta hitza eman die INGEMAko kideei, Miguel Leturia jaunari eta Mayte Sancho andreari, aurretiaz bidalitako agiria aurkezteko.

Ingema elkarteko Miguel Leturia jaunak bere aurkezpena hasi du barkamena eskatuz prozesuan parte hartu duten pertsona batzuk ez gaineratzeagatik, eta agiri bat banatu du zerrenda zuzenduarekin.

Elkarrizketa indibidualizatuen bitartez partaidetza-prozesuan jasotako ekarpen nagusien laburpen bat egin du. Ekarpen horiek aurretiaz bidalitako agirian daude jasota.

Eusko Federpen elkarteko José M. Odriozola jaunak azaletik aurkeztu ditu agiriari egin dizkion ekarpenak, eta konpromisoa hartu du idazki bidez bidaltzeko.

Ingema elkarteko Mayte Sancho andreak bileran bertan emandako agiria aurkeztu du paper-formatuan: "*Zahartzen direnen ongizatean eta tratu onean aurrera egiteko ehun proposamen*".

Ingema elkarteko Mayte Sancho andreak, azpimarratu du agiri hori ez dela orain arte garatu ditugunen moduko plan bat. Ikuspegi-aldaketa bat dela adierazi du, eredu-aldaketa bat. Azaldu duenez, gizarte-zerbitzuen arloko arauen garapenean lan egiten ari diren beste gune batzuk daudenez gero, eta honako hau amaitu gabeko prozesu bat denez gero, plan sektorial bat ez zen oraingoan gehien behar zena, horrek dituen eskakizunekin: aurrekontuak, epeak, adierazleak... Horregatik, azaldu du orientazioen agiri bat dela, epe jakin batez haratago doana (2015).
Hala ere, ekintza zehatzak jasotzen ditu, batez ere hurrengo bi urteetan esperimentatu beharreko jardun pilotuak.

***Punto 1.* Aprobación del Acta de la sesión ordinaria anterior celebrada el 14 de marzo de 2011.**

D. José Manuel Odriozola, de Eusko Federpen, solicita que quede clara su posición a favor de las políticas específicas de mayores en el debate que queda recogido en la página 4.

Tras la incorporación de esta aportación, el acta es aprobada favorablemente y de forma unánime por las personas asistentes.

***Punto 2.* Monográfico: Plan de Acción para las Personas Mayores (2011-2015).**

D. Alfonso Gurpegui, de la Dirección de Servicios Sociales, recuerda el objeto de esta Comisión y da la palabra a D. Miguel Leturia y A Dña. Mayte Sancho, de INGEMA, para que procedan a la presentación del documento previamente enviado.

D. Miguel Leturia de Ingema inicia su presentación disculpándose por la no inclusión de algunas de las personas participantes en el proceso y reparte un documento con el listado corregido.

Realiza un resumen de las principales aportaciones recogidas en el proceso participativo mediante entrevistas individualizadas, y que se han recogido en el documento previamente enviado.

D. José Manuel Odriozola, de Eusko Federpen, presenta someramente sus aportaciones al documento y se compromete a enviar las mismas por escrito.

Dña Mayte Sancho de Ingema presenta el documento entregado en la misma sesión en formato papel: "*Cien propuestas para avanzar en el bienestar y buen trato de las personas que envejecen*".

Dña Mayte Sancho, de Ingema, destaca que este documento no es un plan como los que hemos venido desarrollando. Señala que se trata de un cambio de mirada, de un cambio de modelo. Explica que existiendo otros espacios en los que se está trabajando el desarrollo normativo en servicios sociales y, siendo este un proceso sin concluir, no era lo más necesario ahora un plan sectorial con los requisitos que conlleva: presupuestos, plazos, responsables, indicadores…
Por eso explica que se trata de un documento de orientaciones que va más alla de un plazo determinado (2015), aunque sí que recoge acciones concretas, especialmente actuaciones piloto a experimentar en los próximos dos años.

Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritzako Alfonso Gurpegui jaunak argitu du honako hau eztabaidarako zirriborro bat dela, eta hurrengo hilabeteetan, Batzorde honetan ez bezala, beste foro batzuetan ere eskatuko dela albait ekarpen gehien biltzearren. Zehaztu duenez, Osasun Saila elkarrizketatutako eragileen artean agertzen ez den arren, harreman hurbila eta arina dago bi sailen artean, eta bere ildo estrategikoak kontuan hartu dira agiria lantzeko. Azalpenetarako eta balioespenetarako tarte bat ireki du.

D. Alfonso Gurpegui, aclara que este es un borrador para el debate y que en los próximos meses se socializará no sólo en esta Comisión sino también en otros foros, para recoger las mayores aportaciones posibles. Matiza que aunque el Departamento de Sanidad no aparece entre los agentes entrevistados, existe una relación cercana y fluida entre los dos departamentos y que sus líneas estratégicas se han tomado en cuenta en su elaboración. Abre un espacio para las aclaraciones y valoraciones.

Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Saileko José Antonio Marín jaunaren ustez, agiri honetan proposatzen dena adinekoen partaidetza-ereduaren aldaketa bat da, eredu anglosaxoiago bat izateko, eta horren alde badago ere, pauso hori oso zaila da.

D. José Antonio Marín del Departamento de Política Social y S. Sociales de la Diputación Foral de Alava opina que lo que está planteándose en este documento es un cambio del modelo de participación de las personas mayores hacia un modelo más anglosajón, y que, aunque lo comparte, este paso es muy difícil.

Mayte Sancho andreak adierazi du egungo eredua agortzen ari dela eta aldaketak egin behar direla.

Dña Mayte Sancho valora que el modelo actual se agota y requiere modificaciones.

Bizitzen fundazioko Virginia Lizarraga andrearen iritziz, baliteke partaidetza-eredua hobeto azaltzea kulturaren aldetik adinaren aldetik baino, eta, beraz, pentsatu beharko litzateke gizarteak partaidetza-eredu anglosaxoi bat edo mediterraneo bat nahiago ote duen.

Dña. Virginia Lizarraga, de Fundación Bizitzen, opina que el modelo de participación pudiera ser que se explique en mayor medida por claves culturales que por claves de edad, por tanto habría que pensar si la sociedad prefiere un modelo de participación anglosajón o uno mediterráneo.

Gizarte Zerbitzuetako Zuzendariak, Alfonso Gurpegui jaunak, adierazi duenez, hain zuzen ere hori da agiri honen xedea, ereduari buruzko eztabaida sortzea.

D. Alfonso Gurpegui, Director de Servicios Sociales, apunta que precisamente es lo que busca este documento, generar debate respecto al modelo.

José Manuel Odriozola jaunaren ustez, boluntariotza sufritzailearen errealitatetik aldendu beharko ginateke, eta herritarretan hain oinarritua ez dagoen boluntariotza-estilo zabalago baterantz zuzendu.

D. José Manuel Odriozola, de Eusko Federpen, aboga por alejarnos de la realidad del voluntariado sufridor y dirigirnos hacia un estilo de voluntariado más amplio y menos centrado en los cuidados.

Osasun Saileko Elena Elosegui andrea ados dago Alfonso jaunak esandakoarekin. Hori dela eta, adierazi duenez, aurkeztutako agiriarekin identifikatzen da, kronikoen estrategiarekin eta arreta soziosanitarioko esparru-agiriarekin lerrokatua baitago.

Dña. Elena Elosegui, del Dpto. de Sanidad, muestra su acuerdo con lo apuntado por Alfonso. Señala que está identificada con el documento presentado ya que está alineado con la estrategía de crónicos y con el documento marco de atención sociosanitaria.

José Manuel Odriozola jaunak Zuzendaritzari zoriondu dio agiriarengatik, baina adierazi du prozesu parte-hartzaileagoa izatea gustatu izango litzaiekela, aldundiko eta tokiko gainerako Sailen eta administrazioen zeharkako presentzia bermatuz, baita hirugarren sektorekoena ere, bereziki elkarrizketa zibileko mahaian bildutako sareena.

D. José Manuel Odriozola, felicita a la Dirección por el documento, pero señala que les hubiera gustado que fuera un proceso más participativo, asegurando la presencia transversal del resto de Departamentos y administraciones forales y locales y también del tercer sector, especialmente de las redes presentes en la mesa de diálogo civil.

Ingema elkarteko Miguel Leturia jaunak erantzun du oraindik parte hartu ez duten eragileek hurrengo hilabeteetan parte hartu ahal izango dutela.

D. Miguel Leturia, de Ingema, responde que con las y los agentes con los que no se ha contado, aún podrán participar en los próximos meses.

Eusko Federpen elkarteko José Manuel Odriozola jaunaren iritziz, bizi dugun aldaketa demografikoa oso garrantzitsua da eta neurriak hartu behar dira herrialde guztietan. Proposamen interesgarri gisa balioesten du gero orokortu eta arautu daitezkeen esperientzia pilotuak eta jardunbide egokiak martxan jartzea. Adierazi duenez, hurrengo urtean zahartze aktiboaren definizioan aurrera egin behar da, eta, beste aldetik, arreta soziosanitarioko eredua aldatzearen alde dago, lehen mailako arretari eta etxeko arretari lehentasuna emanez.

D. José Manuel Odriozola, de Eusko Federpen, opina que el cambio demográfico que estamos viviendo es muy importante y que hay que tomar medidas en todos los paises. Valora como una interesante propuesta la puesta en marcha de experiencias piloto y buenas prácticas, posteriormente generalizables y regulables. Señala que el año que viene hay que avanzar en la definición del envejecimiento activo, y por otro lado, aboga por cambiar el modelo de atención sociosanitaria, priorizando la atención primaria y en el domicilio.

Osasun Saileko Elena Elosegui andreak, berrikuntzaren eta esperientzia pilotuen aldeko apustua egin du antolamendu-gaietan. Haren iritziz, erronka bat da premiei erantzutea antolamendu-eredu berriekin, beti zerbitzuak eta partida ekonomikoak nahitaez handitu beharrik gabe.

Dña. Elena Elosegui, del Dpto. de Sanidad, apuesta por la innovación y las experiencias piloto en cuestiones organizativas. Opina que es un reto responder a las necesidades desde nuevos modelos organizativos, sin la obligación de aumentar siempre los servicios y las partidas económicas.

Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritzako Alfonso Gurpegui jaunak aurreikusitako ekintzei dagokienez, argitu du agirian ekintza oso zehatzak ikus ditzakegula, hala nola tratu txarren kasuetan entzun, orientatu eta laguntzeko telefono-zerbitzu bat martxan jartzea, edota bestelako ekintza oso orokorrak. Hortaz, adierazi duenez, garatu ahal izateko, herri-administrazioen nahiz hirugarren sektorearen konpromisoak eta apustuak behar ditu.

D. Alfonso Gurpegui, respecto a las acciones previstas, aclara que en el documento nos podemos encontrar con acciones muy concretas (como la puesta en marcha de un servicio telefónico de escucha, orientación y apoyo ante situaciones de malos tratos), como con otras acciones de carácter muy general. Señala, por tanto, que para su desarrollo requiere de compromisos y apuestas de las diferentes administraciones públicas así como del tercer sector.

Nagusilan elkarteko Jose Luis Elosua jaunak zuzendaritzari zoriondu dio adinekoen eremuan ekintza-jarraibide batzuk ezartzeko konpromisoari eusteagatik eta aurkeztutako agiriarengatik. Bere erakundeak kontseiluetan eta batzordeetan etengabe eta ez soilik une jakin batzuetan parte hartzeari ematen zaion garrantzia azpimarratu du.

D. Jose Luis Elosua, de Nagusilan, felicita a la dirección por mantener su compromiso de establecer unas directrices de acción en el ámbito de mayores y por el documento presentado. Destaca la importancia que desde su entidad dan a la participación en consejos y comisiones de manera continua y no sólo en momentos puntuales.

Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Saileko José Antonio Marín jaunak, oso balioespen ona eman dio egindako lanari. Haren ustez, agiri ausarta da, aldaketa oso handia ekarriko du egiten ari diren gauzekin, eta aurrekontu-arloko erantzukizun oso garrantzitsuak izango ditu. Bere ustez, denen artean ikusten badugu eredua hori dela, aurrera ba. Azkenik, adinekoen elkarteei hitz egin die gogoratzeko administrazioei partaidetza handiagoa eskatzen dieten aldi berean beren barruan ere partaidetza handiagoa bultzatu beharko luketela.

D. José Antonio Marín, del Departamento de Política Social y Servicios Sociales de la Diputación Foral de Alava, valora muy positivamente el trabajo realizado. Considera que es un documento atrevido que supondrá un cambio muy fuerte con lo que se viene haciendo y que tendrá unas responsabilidades presupuestarias importantes. Opina que, si entre todos y todas vemos que ese es el modelo, pues adelante. Por último, se dirige a las entidades de mayores recordando que al mismo tiempo que solicitan a las administraciones más participación debieran de impulsar ellas internamente también una mayor participación.

Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritzako Alfonso Gurpegui jaunak, ezarri du ekarpenak biltzeko epea irailaren 9ra arte izango dela, gero batzorde honi deitu ahal izateko.

D. Alfonso Gurpegui, de la Dirección de Servicios Sociales, establece que la fecha de recogida de aportaciones será hasta el 9 de septiembre, para poder convocar posteriormente a esta Comisión.

Idazkari teknikoak konpromisoa hartu du agiria aste honetan bidaltzeko ekarpenak jasotzearren, baita eskatu ahal izateko ere, albait ekarpen kopuru handiena biltzearren.

Bestelako izapiderik gabe, 13:00etan bilkura amaitutzat eman da.

La Secretaría técnica se compromete a enviar el documento durante esta semana para la recogida de aportaciones y para poder socializarlo, de cara a recabar las máximas aportaciones posibles.

Sin más trámite, se da por finalizada la sesión a la 13:00 horas.

IDAZKARIA
SECRETARÍA

PRESIDENTEAREN ONIRITZIA
VºBº EL PRESIDENTE